

IKASLEEN TXOKOA 100. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 1-2



Sendabelarrak

Inoiz pentsatu al duzu agian zure etxe ondoko zelaieko belar batzuk gaixotasun desberdinak sendatzeko balio dutela? Sendabelarren tradizio hau uste duzuna baino gertuago duzu, zure begien aurrean.

Gainera, ba al zenekien neanderthalek ere erabiltzen zituztela sendabelarrak? Eta ba al zenekien orain farmazian erosten dituzun produktuen erdiak iturri naturaletik lortzen direla? Hau eta gehiago deskubritu nahi baduzu landare miresgarri hauek jarraitu irakurtzen, zeren eta testu honetan, haien jatorriaz, tradizioaz, medikuntzaz eta ukenduaz informatu ahal izango duzu. Baita hauetako belar berezi bat ondo ezagutu ere.

Senda-belarren jatorria

Deskubritu dute, atzera jauzi egiten badugu denboran 125.000 urte, gure arbaso ziren neanderthalgo gizakien ondakin fosilduetan sendabelar arrastoak aurkituko genitzakegula. Horrez gain k.a. 3500 urteko senda belarren erabilera eta azterketa baieztatzen duten idazkiak aurkitu dituzte.

Gure bizi kalitatea hobetzeko hasi ziren senda-belarrak erabiltzen. Orain berriz, erremedio artifizialak erabiltzen ditugu gehien eta landare horien erabilera gutxitzen ari da. Dena dela, antzinan senda-belarrak bakarrik erabiltzen ziren.

Sendabelarrak sorginekin erlazionatzen zituzten. Halaber, gure kultura oso presente izan ditugun pertsonaiak dira sorginak eta Euskal Herrian betidanik sinetsi izan da sorgintasunean. Herritar asko joaten zitzairen laguntza eske: ukendu, sendabelar eta aholku eske, alegia. Eliza katolikoak mundu magiko hori debekatu bazuen ere, belar hauekiko jakituria hori belaunaldiz belaunaldi transmititu den kultur ondare aberatsa dela ikus daiteke eta gaur egun, oraindik bizirik jarraitzen duena.

Lehen pentsatzen zuten intxaurrek garunaren itxura duenez, buruko gaitzak sendatzeko balio zuela. Besteak beste, Gibel-belarrak gibel itxurako hostoak dituzenez, gibelko gaixotasunak sendatzeko bikaina zela uste zuten, Lobariak, medikuntza asko erabiltzen zen eta desagertzen ari den landare, biriken antza omen duenez, biriketako gaitzak sendatzeko, etab. Uste zuten jainkoak itxura eman ziola nonbait landareari, guk jakin genezan zer sendatzen zuten.

Agertu diren idazkiengatik badakigu Txinan, Indian, Egipton eta Nagpur-en aspalditik erabiltzen zirela belar berezi hauek eta oraindik jarraitzen dituzte erabiltzen. Gainera, Nagpur, Indian dagoen hiri bat da, baina berezia da orainarte aurkitu den senda-belarrei buruzko idazki zaharrena han topatu zelako duela 5.000 urte baino gehiago. Bestalde, Homero greziarraren Odisea eta Iliadan ere agertzen dira horietako asko.

Urteetan familietako tradizioa

Familiako kideren batekin ikasten zuten sendabelarrei buruz zekitena, lagunduz. Zihur aski familiako kide guztiei erakusten zitzairen sendabelarrak erabiltzen. Hala ere, kasu batzuetan kuranderoek, hots, sendabelarretan espezializatutako norbaitek, erakusten zien. Kurandero askok belar hauekin gizakien gaixotasunak sendatzeaz gain, etxeo animaliak ere sendatzen zituzten. Adibidez, gure baserrietan behie kura egiten zieten anketan. Enplastoak ere egiten zituzten, alegia, zaurien barrengo zikina ateratzeko egiten den nahasketa bat berbena eta arrautzaren txuringoarekin. Horrez gain, beste enplasto mota bat kristala txiki-txiki egin eta ogi-irinaren nahasketa bi trapuren gainean jarri eta hori zauri gainean jartzea zen. Gainera, bazegoen beste mota bat ere, karakol bati etxea kendu egiten zitzaion eta etxe gabeko karakola, bi trapuren erdian jartzen zuten ondoren zauri gainean jartzeko.

Ez zegoen data berezirik sendabelarrak jaso eta dena delakoa egiteko baina landare batzuk denboraldia zuten eta normalean uda izaten zen landare mota gehien zeuden urtaroa. Esaterako, Plantina, Zahain gorriak... ziren eta dira lortzeko sendabelar errezenak eta erabiltzen lehenengo erakusten direnak, izan ere, urte guztian egoten diren landareak dira. Era berean, gutxi gora behera 16-20 urte bitartean hasten ziren sendabelarrei buruz ikasten. Normalean goiz batean familiako norbaitek belarren bila paseo bat ematen zuten. Horrez gain, infusio asko ere egiten zituzten, ezarriko kalteetarako batez ere. Hori egun aurretik landareak sekatu



Sendabelarrak lehortzen

egiten zituzten, beti itzaletan.

Landareak jasotzeko uneko denborak eta adibidez ukendua egiteko denborak ez zuten hainbeste diferentziarik, baina pomada egitea baino, belarrak jasotzea errezagoa zen. Landarearen denboraldia eta kokapena jakinda, goiz bakar batean egina zegoen. Ukendua egiteko uneak aldiz pazientzia gehiago eskatzen zuten. Ez ziren urrutira joaten sendabelarren bila, zeukatenarekin konformatzen ziren, inguruan zituzten belarrekin.

Sendabelarrak medikuntzan

Gaur egun erabiltzen diren farmazia-produktuen erdiak iturri naturaletatik lortzen dira. Seguraski, adibide ezagunena aspirina da, jatorriz sahasaren azalean eta hostoetan dagoen osagaia baita. Bayer farmazia-industriak aspirina merkaturatu aurretik, mina arintzeko eta sukarra jaisteko, sahasaren zati horiek egosi eta belar-ura moduan hartzen ziren hainbat tokitan. Beste adibide bat kina zuhaitzetik lortzen den kinina da, gaur egun ere malariaren aurka herrialde askotan erabiltzen dena. Orain, IHESA, Alzheimerra eta minbizia bezalako gaitz larri eta zabalduen aurkako borrokan, mundu osoko ikeritzaileek iturri naturaletara jo dute, irtenbidea landareetan edo animalietan egon daitekeelako.

Gehien erabiltzen diren senda belarrak medikuntzan hauek dira: Menta, Erregaliza, Ginseng-a, Baratxuria, Ginger-a, Osina, Izpilikua, Aloe vera, kalendula eta kamamila.

Batez ere infekzioak, zauriak, tentsio altua, gehiegizko kolesterola, diabetea, zizareak, gibelko gaitzak, giltzurrunekoak, katarroa, hanturak, mina, etab. sendatzeko erabiltzen dira landareak. Ia denetarik sendatzen dute, baina ongi dakite kasu batzuetan sendagilearengana joatea beharrezkoa dela, adibidez, ebakuntza egitea beharrezkoa den kasuetan.

Sendabelar ukendua

Belar bakoitzaren propietatea gorabehera, ukenduak egiteko modua oso antzekoa da kasu gehienetan. Egokiena da egun batean belarrak biltzea, eta hurrengoan egitea ukendua, hauek garbitu eta lehortzen utzi behar direlako. Hori eginda, belarrak txikitu eta beste osagaiekin batera egosten dira kazuela edo zartagin batean. Bestalde, indar gutxiko suarekin egosi behar dira, sendatzeko propietateek indarririk ez dezaten, eta ordubete inguruan belarren kolore berdea hartzen du olioak. Ondoren, iragazi, hau da, jartzen zaion filtro batetik olio eta belarra banatu, egiten dira eta argizaria gehitzen zaio, hoztutakoan, solidotzeko.

Esan bezala, ia edozein sendabelar erabil liteke ukenduak egiteko. Horrez gain, normalean bildutako belar mota guztiekin egiten zen ukendua, erabilera askotarako ukenduak egiteko. Ukendu berean aurki daitezke: intsusa, erromeroa, zaingorria, pasmo-belarra, berbena, iodo-belarra, plantain edo llanten luzea eta borobila, kardabera horzduna eta lisoa, uztao-belarra, suge-belarra, malba, mantzanila, tipula erdia... Oro har, pasmo-belarra, berbena eta zaingorria oso ohikoak dira ukenduetan. Sukaldaritzatik gertuago dauden hainbat landare ere erabiltzen dira, esaterako: baratxuria, tipula eta intxaurre azalak.

Pasmo belarra

Pasmo belarraren izen botanikoa Anagallis arvensis da. Landare honi pasmo belarra, amorru-belarra, izukeslea, gangrena-belarra, murajes, hierba para infecciones, mando-belarra eta abar deitzen zaio. Oso izen egokia da pasmo belarra, izan ere, gure arbasoek landare pasmo-ari aurre egiteko, alegia, infekzioari, gangrenari, zorneari, zikinkeriari aurre egiteko, erabiltzen zuten. Halaber, oso landare ezaguna da Euskal Herrian.

Katarro, bronkitis, flemak, si-

nusitisa... ditugunean ere hauek garbitzeko lagungarria izan daiteke. Enplasto egin eta bularean jartzen da, baina, infusioak ere har daitezke. Zauri infektuak, arantzak, biruta edo eta haragian zerbait sartua badugu ere oso lagungarria da belar hau.

Landare etzana da, lurretik zabaltzen den horietakoa. Gehienez 15 bat zentimetroko altuera har dezake belar honek. Arrosa koloreko lore txiki batzuk izaten ditu. Gainera, beste zenbaitzuekin batera landarerik herrikoienetako bat izango da, seguraski.

Ukendua egiteko landarearen kanpo atal osoa, loreak eta guzti, behar dira. Gantza eta argizaria, su motelean egosi, iragazi eta potetan gordetzen da. Era berean, ukenduari pasmo-belarra gaineratzeko, bada beste modu bat: kazolan gantza, argizaria, berbena, txikitutako bi-baratxuri ale eta xaboi-puxka bat bota. Jarraian, pasmo-belarra oihas batean bildu, xehatu, hots, txikitu eta zanpatu egiten da landarearen zuku ateratzeko. Zuku hori kazolara gainertzen da ukendua egiteko.

Zainak ezik Pasma belarraren dena erabiltzen da: loreak, zurtoina eta hostoak. Halaber, otsaitetik aurrera loratzen da eta lekuaren arabera udara guztian zehar aurki genezake loretan. Ez dugunez urte guztian aurkituko komeni izaten da bildu eta ondo lehortu ondoren, txarrotan edo ohialetan jasotzea. Zelaiek, paretak, bide ertzak, lur landuak, baratzak eta lur maldatsuek atsegin dituzten landare honek.

Pasmo belarraren bitxikeria bat izena latineko anagaleietik datorkiola da eta badirudi bere itzulpena farre algara dela. Gainera, animaliek asko dakitenez ez dute jaten, hil baitaitezke baina oiloei asko gustatzen omen zaie eta bilatu egiten dute. Hontaz, oiloek jaten dutenean kantari hasten omen dira, algara farrez.

Egilea: Nahia Goikoetxea

Eguneroko kronikak

«Kronikan»

Hernaniko egunkaria denok dakigu zein den: Kronika, goizero ogiarekin batera jasotzen duguna okindegian; baina inoiz galdetu al diozu zeure buruari Kronika zer den benetan?

Zer helburu dituen? Nork egiten duen, non eta nola? Zergatik edo zertarako sortu zen? Hori guztia jakiteko, Jon Osa administrazio-ko langilea elkarrizketatu du Kronikako bulegoan bertan, eta egunkariari buruzko hainbat datu interesgarri aipatu dizkigu.

Kronikaren sustraiak

Kronika 2000. urteko ekainaren 23an sortu zuen Dobera euskara elkarteak. Jon Osa zehaztu duenez, hiru boluntariok sortu zuten: Unai Agirrek, Jesus Mari Irazuk eta Aritz Zerainek.

«Doberak herrian aldizkari edo egunkari bat sortzeko gogoaz zuten pertsona deitu ziren Biterira, bilera bat egiteko -azaldu du Osak-. Bertan bilera handi bat egin zen. Doberako jendea bertan zegoen eta baita Kronika sortuko zutenak ere». Bilera horretan erabaki zen egunkari bat sortzea. Gero, 0 aleak deitu ziren make-ta proba desberdinak egin ziren. Aurkezpenak egin zitzaizkien partiduei, udalari, herriko elkarte batzuei etab. «San Joanekin batera publikatu zen lehenengo alea. Hasieran, 5 ale argitaratzen ziren astean, eta geroztik handitzen joan da, gaur egunera iritsi arte». Gero, 2004-2005. urte inguruan, astean 5 ale publikatzen 7 ale publikatzen pasatu ziren. Kronika handitzen joan zen heinean, orri kopurua ere handitzen joan zen; hasieran bi orrialde bakarrik publikatzen ziren, eta, geroago,

astean pare bat aldiz 2ko edota 8ko aleak ateratzen joan ziren, 16 atera arte. Gaur egun, Kronikak 8 langile ditu, eta gauean hurrengo egunerako aleak inprimatzera joaten denarekin bederatzi.

Euskara zabaltzea helburu

Kronika euskara hutsean izango zela erabaki zuten sortzaileek, euskararen normalizazioa bilatzea baitzen haien helburu nagusia. Garai hartan ez zegoen euskarazko tokiko hedabiderik. Jon Osa argitzera eman duenez, «giza baloreak ere bilatzen zituzten, justizia, solidaritatea eta tolerantzia. Eta baita burujabetza ere, hau da, Kronika independentea izatea, alderdi bati lotu gabe, eta baliabideetan ere burujabe izanez. Baina, batez ere, euskararen normalizazioa bultzatzea zuten buruan eta hedabide moduan bultzatzea».

Bulego aldaketak

Kronikak hala ere, ez ditu Hernaniko kontuak bakarrik ateratzen. Jon Osa argitu duenez, Kronikak beti publikatu izan ditu Goizueta-ko albisteak, nahiz eta Hernanin bakarrik eman albisteen berri. Hernani inguruko herrietan ez zegoen tokiko hedabiderik, 2014an Kronika Urumea bailara osoan aleak argitaratzen hasi zen arte. Hori dela eta, Astigarragan Kronikak bulego txiki bat ireki eta langile bat jarri zuen bertan lanean.

Astigarragan beste Kronika

bat sortu zuten, eta astean behin publikatzen zuten, asteazkenean. Beraz, biak egun berean ateratzen ziren. Kronikako administrazio-ko langileak gehitu du ez zela oso bideragarria Astigarragan bulegoa zabalik mantentzea: «Astigarragan bulegoa berria zenez, jendea ez zen joaten bertara, askotan Hernaniko bulegotik manejatzen zen Astigarragan informazioa eta errazago ikusi zuten informazioa Hernanitik zentralizatzea».

Gaur egun Hernaniko bulegoa dago soilik, baina kontaktu handia dago beste herriekin. Osak esan duenez, inguruko herrietako informazioa eta argazkiak lortzen dituzte. 2019ko urtarrilaren 1etik, Kronika bakarria iristen da Urumea bailara osora.

Kronikan antolakuntza ezin hobearren beharra

Egunero berriak atera ahal izateko, informazio asko bilatu behar da, Kronikako langileak adierazi duenez: «bailarako jende askok bidaltzen digu informazioa, sare-sozialen bidez, e-mail bat bidalita, bulegora etorrira edota Whatsapp bidez, Kronikan publikatzeko eskatuz. Eta Udaletxeekin eta Aldundiarekin ere kontaktu asko dugu».

Osak aitortu duenez, antolakuntza konplexua dute. Egunkari bat izateak, kazetari batek gutxienez beti bulegoan egon behar dela esan nahi du, urte osoan zehar.

Lau kazetariet txandak egiten dituzte: batzuk eguneroko notiziak kontrolatzen dituzte, beste bi larunbateko 16 orriko alea prestatzen egoten dira. Azken horiek erreportaje eta elkarrizketa landuagoak egiten dituzte gehienbat, orri bateko ale batean sartzen ez direnak. Asteartetan hasten dira jendearekin kontaktuan jartzen edo hurrengo asterako harremanak egiten, gero hori dena idatzi eta

paperera pasatzeko, baina hiru edo lau egun geroago, erreportaje batzuk sakontasuna behar dutelako, jendearekin kontaktuan jarri etab. Eta gero beste bat egoten da, arratsaldeetan txandak egiteko. Normalean hilabetean behin edo asteburu bat egiten dute lan eta itxierak ere txandakatzen doaz. Beste lau langileak ere, administrazioko bi eta publizitateko beste bi, txandaka doaz egunero itxiera bat egiteko. Arratsaldeetan beti norbait dago, eskelak egiten, argazkietan laguntzen edo publizitatea sartzten... kazetariet laguntzen. Kazetaria idaztera dedikatzen da, eta besteek itxierako alea zuzentzen laguntzen diote, internetera igotzen, argazkiak ateratzen...

Diru iturri nagusiak

Administrazioko langileak aitortu duenez, «gure diru iturri nagusia, portzentaia handi batean, diru laguntzak dira; esan dezakegu %60a dela Hernaniko Udalak eta beste herrietako udalek ematen digutena, Foru Aldundiak ere dirulaguntzak ematen dizkigu». Beste zati handi batean publizitate bizi dira. Eta, azkenik, bazkideak dituzte, Doberakoak (450 bat), eta kronikalariak (130 bat; horiek Kronikarekin bakarrik dute zerikusia). Bazkideek diru kopuru jakin bat ordaindu behar dute, eta horrekin, Kronikari aurrera jarraitzen laguntzen diote. Kronika egunkaririk ez dute dirurik ateratzen, debalde hartzen baita okindegi eta tabernetan.

Mota guztietako hartzaileak

Kronikako langilearen hitzetan, paperean 4.000 ale inguru argitaratzen dituzte egunean; gainera, web orrialdean bisita dezente dituzte. Horretaz gain, sare sozialetan albisteak publikatzen dituzte, eta bueltan bertatik ere berri asko etortzen zaizkie.

«Paperean, eboluzioak horre-

la eman duelako -zehaztu du Jon Osak-, pertsona heldu askok irakurtzen du. Gazteek interneten gehiago, sare sozialetan edo web-orrian. Gainera, kirola gustatzen zaien jende askok irakurtzen du azkeneko partida eta txapelketen emaitzak ikusteko, astearteko alean gehienbat. Eskelak ere pila bat ikusten dira. Mota guztietako hartzaileak ditugu».

«Kronika euskaraz denez -gaineratu du Osak-, normalena izango litzateke euskaraz dakiten pertsonak bakarrik irakurtzea, baina ez: badago jendea, euskaraz oso gutxi jakin arren, Kronika irakurtzen eta jarraitzen duena».

Sariak albiste onen ondorioz

2019an, Kronikak sari bat irabazi zuen, Tokikom-en. Jon Osak azpimarratu duenez, Goizueta inguruko Artikutzan presa bat ireki zen; Kronikako kazetari bat bertara joan zen argazkiak ateratzera eta biologo baten laguntzarekin informazioa bilatzera. Hiru edo lau orriko erreportaje zabala egin zuen eta Tokikomek saritu egin zuen.

Erreportaje zabal asko egin dira Kronikan, eukaliptoari buruzkoak, adibidez. Bestalde, berri txarrak asko irakurtzen direla nabarmendu du: istripuak, uholdeak... Osak aditzera eman duenez, eguneroko gauzak dira gehienbat Kronikan ateratzen direnak. Kirola ere asko lantzen dutela gaineratu du: «Kronikak salto handia eman zuen astearteetako alearen publikazioarekin. Kirol elkarte askok beraien albisteak Kronikan publikatzeko eskatzen zuten, eta kirol bakoitzari lekua ematea erabaki genuen. Astebururo bidaltzen dizkigute emaitzak, eta guk asteartean argitaratzen ditugu. Kultura arloan ere saiatzen gara sartzen».

Egileak: Nahia Alcobilla eta Robin Beyreuther

Garaiak aldatu dira

Jakina da euskarak momentu onak eta ez hain onak pasa dituela, momentu horiek gogorazteko, momentu gogor horiek bizi dituzten bi adineko euskaldun elkarrizketatu dira, Axun Lizarraga eta Ana Iburguren.

«Koadernoak betetzen genituen eta etxean ez zegoen koadernoak erosteko dirurik»,
Ana Iburguren.

Atzera begira

Eskolan erderaz hitz egiten zuela aipatu du Axunek, oso barneratuta zutela eskolan erderaz hitz egitea eta ez zutela horregatik inoiz

zigortu. Anak ere erderaz hitz egiten zuela esan du, «debekatu genuen euskaraz hitz egitea, zigortuta egoten ginen askotan, euskaraz hitz egiteko ohitura genuen eta, gainera, ez genekien ondo gaztelaniaz. *No hablar en vascuence en horas de clase* idaztea egiten ziguten lurrian, askotan mila aldiz. Ez hori bakarrik, koadernoak betetzen genituen eta etxean ez zegoen koadernoak erosteko dirurik».

Bai Anak eta bai Axunek euskaraz hitz egiten zuten gurasoekin, baita lagun gehienekin ere, nahiz eta Axunek aipatu duen, lagun batzuk ez zirela euskaldunak eta horiekin erderaz hitz egin beharra zegoela.

Anak Frankoren garaian euskaraz hitz egiteari beldurrik ez

ziola aipatu du, are gehiago, erdaldunak ikustean euskaraz hitz egiten zuten ez ulertzeko. Axunek ere ez zion beldurrik Frankoren garaian euskaraz hitz egiteari.

«Euskaraz erakutsi nien nire seme-alabei, ez zidan beldurrik ematen»,
Axun Lizarraga.

«Nire seme-alabei gaztelaniaz erakutsi nien. Nire senarrak eta nik kanpoan lan egiten genuen beraz, seme-alabak zaintzeko eta etxeko gauzak egiteko langile bat genuen, ez zekien euskaraz, gainera, ikastolak orduan hasi ziren eta ikastola batzuk arazoak izan zituzten politikarekin eta ez genituen arazoak nahi», esan du Anak. Axunek, aldiz, euskaraz

erakutsi zien seme-alabei, ez zion beldurrik ematen.

Oraina bizitzen

Denda batera sartzean, biek euskaraz egiten dute lehenengo hitza, baita txikitzen ere. Gaur egun, hori harriztekoa izan daiteke denda batera sartzean zalantzan jarri daitekeelako euskaraz edo gaztelaniaz egin lehenengo hitza.

Bai Axuni eta bai Anari lehen kalean entzuten zen euskara eta orain kalean entzuten den euskararen artean desberdintasuna dagoela iruditzen zaie. «Lehen erdia baino gehiago ez nuen ulertzen, orain, bilobekin ikasi dut. Eskolan ez genuen euskara ikasi eta gurasoekin hitz egiten genuena ez zen euskara batua», kontatu du Anak.

«Jendea saiatzen ez bada euskararekin jarraitzea ez da erraza izango»,

Ana Iburguren.
«Euskara ez da galduko»,
Axun Lizarraga.

Etorkezuna igartzen

Jendea saiatzen ez bada, euskararekin jarraitzea ez dela erraza izango pentsatzen du Anak, kanpoko jende asko dagoela eta telebistan ere programa gehienak gaztelaniaz direla, 16-17 urtetik aurrera gazteek euskaraz hitz egiteari uzten diotela. Axunek, aldiz, pentsamendu baikorra du eta euskara ez dela galduko pentsatzen du.

Egileak: Olaia Lete, Egoitz Ansola eta Oier Arratibel

Mari jainkosa

Sarrera:

Euskal Herrian betidanik egon dira mitologia eta mitoak. Mitologia horretatik, Mari jainkosa ospetsuetako bat da. Euskal Herriko herri bakoitzean ezagutzen da ustez bere bizilekua den mendi edo haitzuloaren izenarekin, txori bakoitza bere adarrera, Mariren kasua Anboto haitzuloa da. Bestalde, esaten da, lur azpian dagoenean, animala itxura hartzen duela. Mari lur azpian egon eta gero edozein haitzulo-

tatik ateratzen da, horregatik, ezagutzen dute leku askotan.

Jatorria/Historia:

Kondairarik ezagunenarengatik, Mari edo Maddi jainkosa, ondorengorik gabeko familia batean, haurdun geratu nahi zuen, hogeitertekin, orduan, deabruari deitu zion haurdun geratzeko eta gero deabruak eraman zuen. Azkenean, pozik geratu zen, izan ere, neska eder batekin haurdun geratu zen eta bere desira lortu zuen.

Bizilekua:

Hainbat euskal mendietan bizi da (Txindoki, Murumendi, Gor-

beia...) eta bizitokirik garrantzitsuena Anbotoko mendia da, «Mariren Koba» izenez ere ezagutua, horregatik, esaten zaio «Anbotoko dama». Esaten denez, Mari lekuz aldatzen denean kusi dezakegu bere suzko karroa. Mari joaten den lekura eguraldia hobetzen edo okertzen da, hau da, berak kontrolatzen du eguraldi ona edo txarra egiten duen Euskal Herrian.

Nolako den:

Marik ile luze lisoa eta marroia du. Begi marroi eta laranja ilunak ditu. Gorputzez nahiko argala da eta beti soineko batez

janzten da (soinekoa kolore askotakoa izaten da). Berarekin beti du makila bat ahuntz baten kraneoarekin. Ez du zapatarik jantzita, nahiz eta ez zaizkion inoiz ikusten oinak. Bere lagun eta lagunkide bezala ahuntz bat du, beraren ondoan doa beti.

Nola dagoen gaur egun:

Gaur egun euskal mitologia ahaztuta dago, baina jainko-jainkosen bat gogoratzen da. Horietako bat Mari da. Mari Euskal mitologiako jainkosa ezagunena izan da, ez da harritzekoa, baina berarengatik, beste pertsona asko ahaztu egin dira eta pertsona

asko pauso bat gutxiago daude mitologia eskalan.

Sinesmenak:

Mari barruko lurraren, eguraldiaren eta meteoroen jainkosa da. Esaten denez, Marik aukeratzten du Euskal Herrian zein eguraldi egiten duen baita ere, esaten denez, lekuz aldatzen denean eguraldia asko aldatzen da, bera zer moduz sentitzen den. Gainera, Mari beraren misioetako bat gezurrik ez esatea da.

Egileak: Maddi Martin

Euskararen erabilera eskola munduan eta kalean

Euskarak gorabehera asko izan ditu urte askoan. Askotan esan izan dute aldatetako onerako izan direla, baina ala ote da? Pentsatu izan da aitona-amonentzat zaila izan zela egoera. Beraien iritzia jakin nahian beraiengana jo da eta emaitza hauek lortu dira.

Euskararen erabilera eskoletan

Garai batzutan oso ezberdina izaten zen eskolara joatea, jendea baserrietan bizi zen eta bertan euskaraz hitz egiten zuten. Aldiz, eskolara joaten hasi zirenean liburu guztiak erderaz zeuden, eta inoiz entzun ez zuten hizkuntza horretan ikasi behar izan zituzten ikasgai guztiak.

Joxek kontatu du 4 urterekin

hasi zela eskolara joaten, bere baserrietik bi kilometrotara zegoela, eta anai-arreba guztiak batera joaten zirela. Arriatsura joaten ziren ikastera, eta ikasgaiak erderaz izaten ziren. Agustina antzeko gauza bat azaldu du. Agustina Hernanin bizi zen, Santa Barbara bailaran, bere eskola mendian zegoen, eta inguruko baserrietakoak eta herriko familia batzuetako ikasle batzuk joaten ziren. Agustina, ordea, klaseak euskaraz ematen zituen. «Guk klasiak euskaraz ematen genituen, baina, egun batian inspektorea etorri zen eskolara, eta orduan dena gazteleraz ikasi behar izan genuen, harekin hitz egiteko» kontatu du Agustina.

“Egun batean inspektorea etorri zen eskolara, eta orduan dena gazteleraz ikasi behar izan genuen, harekin hitz egiteko”.

Agustina

Joxeren iritziz, ez zitzaie zaila egiten erderaz ikastea. Izan ere, oso txikitatik hasi ziren erderaz ikasten, bere kasuan 4 urtetatik.

Joxek esan du: «klasiak ezin genun euskeraz hitz egin, maestra erdalduna zelako, baina lagun artian dena euskaraz egiten genun».

10 urte egin zituenean gauzak zaildu egin zitzaizkion ordea. Izan ere, eskolaz aldatu zen, eta eskola berrian liburuak eta dotriña euskaraz zeuden. «Krixton kanbiua izan zen dena, guk dena erderaz ikasita genun, eta eskola berrian dena euskeraz zegoen!» nabarmendu du Joxek.

tan gehiago izan daitezke.

Partaide horietaz aparte Axeria egoten da dantzako protagonista nagusia, nahi duenarekin dantzan ibiltzen da kaleetan eta jotzeko gogo duenean korrika ibiltzen da herritarren atzetik.

Axeri dantza, Hernaniko zirrikitu guztietatik pasatzen da sustoak emanez eta maxkuriaz, erraldoiak zein buruhandiak jotzen dutenaren antzekoa baina larruz eginiko materialarekin, jotzen aspaldi dantza herrikoi onen hasieran, etxe barrutik beste kaleetara pasatzen ziren. Axeri dantzaren bukaeran, plaza erdian fandango eta arin-arina datzatu ondoren, maxkuria lurrean utzi eta salto batez puskatzen dira eta orrela maxkuriaren soinuarekin batera dantza amaitzen da.

Antzinako Axeri dantza

Aspaldi dantza herrikoi onen hasieran, etxe barrutik beste kaleetara bidea zuten horietatik pasatzen ziren, hau da, etxe barruetatik, etxeko familiei sustoak emanez eta familiak gustora zuten zieten barrutik pasatzen Hernaniko dantza tradizional hau

Joxek esan duenez, geroago Hernaniko eskola batetara joaten hasi zen, eta bertako gertaera batetaz asko gogoratzen da, «Buruntzara joan ginen egunpasa egitera klasekoekin, maextrak esandako gaztelerazko esaldiak errepikatu behar genituen. Nik eta beste neska batek ez genekien asko erderaz, eta esaten genuen hitz bakoitzeko jendea txaloka hasten zen»

“Buruntzara joan ginen egunpasa egitera klasekoekin, maextrak esandako gaztelerazko esaldiak errepikatu behar genituen, nik eta beste neska batek ez genekien asko erderaz, eta esaten genuen hitz bakoitzeko jendea txaloka hasten zen”

Joxe

Egoeraren eragina eskolaz kanpo

herrian oso maitatua zelako. Orain ez daude orrelako etxeak baina gelditutako zirrikituetatik pasatzen segitzen dute garai batean bezala, adibidez, kale nagusian dagoen taberna baten eta etxe baten zirrikituetatik, izan ere, sustoak konturatu gabe erre-xago ematen dira.

Gaur egungo Axeri dantzaren antzekoa zen baina gaur egun jada etxeetatik baimena eskatu gabe pasatzea jendea ez zaio ainbeste gustatzen eta, ondorioz, gelditu ziren kaleetako zirrikitu txikitatik pasatzen dira.

Gaur egungo Axeri dantza

Gaur egun ez dago antzinako aldateta handirik, baina, oraindik Axeri dantza egiten jarraitzen da. Bi urtean ez da egin korona birusaren, ondorioz, baina aurten Ekainaren 23an plazan dantzari sarrera emango zaio.

Aspaldiko moduan egiten jarraitzen da ez orokorrean jada ez direlako etxeetara sartzen, hala ere, berdin egiten da oraindik ohiturak jarraitzeko.

Axeri dantzako partaideak

Axeri dantzan 14-16 pertsonak

Joxek esan du egoera honek ez zuela eraginik izan bere lagunekin hitz egiterakoan. Agustina, aldiz, pixkanaka lagun artean gaztelania erabiltzen hasi zen, eta familiakoek behin eta berriz errepikatzen zioten euskaraz hitz egiteko. Hala ere, bai Agustina eta bai Joxeren gurasoek euskaraz hitz egiten zutela aipatu dute biek, eta haiekin, beti euskara erabili dutela.

Euskararen erabilera gaur egun

Biek aitortu dute euskararen erabilera hobetu egin dela azkeneko urteetan, eta jende gehiagok hitz egiten duela euskaraz. Hala ere, baserriko euskararen doinua galdu egin dela uste dute.

Egileak: Irune Landazuri eta Iare Etxarte

har dezakete parte baita gehiagok ere, emakume zein gizonek hartzen dute parte.

Normalean, helduen dantzan emakume baina gizon gehiagok hartzen dute parte.

Axeri bat bakarrik egon daitezke dantza herrikoi onetan dantzaren protagonista baita, beste guztiak sokatik helduta joaten dira. Gaur egun ez dago oso argi zenbat urtetik gorako gazte eta helduek har dezaketen parte baina 1988tik aurrera 16-18 urteko sasoiako gazte taldeak hartzen zuten parte. Antzinan ez zegoen aurren edo gazteen Axeri dantzarik baina bai gaur egun. Gazteen ala aurren axeri dantza Ttarla dantza taldeak antolatzen du.

Gaztetxoan axeri dantza

Gaztetxoan axeri dantza helduen Axeri dantzaren berdina da baina Ttarlako aur eta gazteek bakarrik hartzen dute parte. Aurten Ekainaren 13ko goizeko 10ak aldera plazan hasiko da gaztetxoan dantza. Aurten 2009-2010. urteko aur-gazteek hartuko dute parte.

Hernaniko Axeri Dantza

Hernaniarrok asko maite dugu Axeri dantza, festetako opari nagusia baita. Eguzkia bezain maitatua da herritarrontzat. Zergatia jakin nahi al duzu? Zer den Axeri dantza? Nolako den? Ezagutu nahi baduzu, zator, elkarrekin dantzatzuko dugu!

Axeri dantzaren sorrera

Axeri dantza aspaldi sortu zen gutxi gora behera 1735-1775ean hasi ziren Hernaniko udalean dantzari buruzko informazioa biltzen, baita aipamen garrantzitsuak ere, esate baterako, Aita Larramendi, Humbolt, Iztueta... oso aipamen on eta garrantzitsuak egin zituzten eta XVII. mendean hasi zirela usten da.

1988. urtean agertu zen lehen-dabiziko aldiz axeri dantza, horrez gain, 1987. urtetik urtera neskek eta emakumeak ere agertu ziren inauterietako gazteen Axeri dantzan. Oraindik ez dago oso argi zeinek eta zergatik sortu zuen baina dantza ontako erreferentzia Manuel de Larramendik 1754ean argitaratutako

liburu batean aipatu zuen.

Axeri dantza Hernanin ospatzen dute San Juan zein Inauterietan egunean.

Gazteek eta helduek ere bai har dezakete parte, gaztetxoak izaten dira normalean gazteen axeri dantzan parte hartzen dutenak 12-13-14 urtekoak gutxi gora behera. Bestalde, helduek 18 urtetik gorako jendeak hartzen du parte normalean. Gaur egun emakume eta gizonek hartzen dute parte baina aspaldiko garaian gizonek bakarrik dantzatzeko zuten.

Gainera goizean goiz egiten den dantza da normalean bederatzietan Hernaniko enparantzan, hots, plazan, hasten da herritarrek hainbeste maitatutako festa txiki hau.

Axeri dantzaren helburu nagusia jendeak ondo pasatzea da baita susto txikiak hartzea ere. Partaideak soka batetik lotuta joaten dira kaleetatik.

15 pertsona inguru izaten dira sokatik eutsita ibiltzen diren partaideak aldiz kasu asko